



## 2017KO ABENDUAREN 1EKO MANIFESTUA

### GURE OSASUNA, GURE ESKUBIDEAK

Beste behin, hemen gara abenduaren 1aren bueltan; data hau garrantzitsua da GIBari eta Hiesari eman beharreko erantzuna gizarte osoak eman behar duela uste dugunontzat. Horregatik, lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen konpromisoagatik eta ekinaldi honetan egoteagatik.

‘Gure osasuna, gure eskubideak’ lelopean egin dugu bat. Aurten, nabarmendu nahi dugu giza eskubideak oinarri dituen ikuspegia txertatzeko beharra; ikuspegi hori nabarmendu behar dugu XXI. mendeko infekzioari aurre egiteko lan sozial eta politikoan. Ekitatea aldarrikatu nahi dugu, eta aldarrikatu nahi ditugu,aldi berean, dibertsitatea, askatasuna, intimitatea, informazioa, autonomia, osasuna eta plazera, GIBaren eta hari lotutako estigmaren aurka borroka egiteko premisa gisa.

2016. urtean, Osasun Publikoaren Institutuaren arabera, Nafarroan 35 pertsonak jaso zuten GIBaren diagnostikoa. Azken 5 urteotan, berriz, 212 diagnostiko berri izan dira. %90, 15 eta 45 urte arteko pertsonen artean. %39k zuten 35 urte baino gutxiago, eta haietako %44 emakumeak ziren. Datuok latzak iruditzen zaizkigu, kontuan hartuta infekzio honi aurea hartzeko moduak badirela.

Osasun Publikoaren Institutuak mahai gainean jarritako ondorioen arabera, gora egiten segitzen dute GIBarekin kutsatu direnen diagnostikoei; diagnostiko berrien kopuruak handia izaten jarraitzen du azken urteotan; kasu gehienetan sexu harremanen bidez gertatu dira kutsatzeak.

Egoera horrek agerian uzten du erabat beharrezkoa dela erakunde publikoek, eta, bereziki, Hiesa Programak, ahaleginak egitea GIBari aurea hartzeko, eta egokitzeko errealitate berrietara eta herritar guztien beharretara.

Oraindik ere, indarrean dira GIBari eta Hiesari lotutako estigma eta bazterketa, eta lan handia bada egiteko estigma eta bazterketa horiek bazter utzi ahal izateko. 30 urtean zientziaren esparruan urrats handiak egin dira, batez ere tratamenduen esparruan, eta urrats horiek itxaropena ekarri dute, GIBa duten eta tratamendu horiek eskura dituztenek duela gutxira arte pentsaezinak ziren bizi kalitatea eta bizi itxaropena lortu dituztelako.



Horregatik, beharrezkoa da prebentziorako estrategia sendoak martxan jartzea: sexu harreman seguruak bultzatzeko kanpaina zehatzak, droga kontsumoaren kalteak ahalik eta gehien arintzeko programak, sexu osasunerako eta ugalketarako Foru Dekretua laster eta modu orokorrean ezartzea, eta GIBaren diagnostiko goiztiarrerako frogak bultzatzea, besteak beste.

Gizarte osoak duen indar guztia erabili behar du ONUSIDA programaren helburuak lortzeko: 0 kutsatze, eta 0 bazterketa; aurten, programa horrek gogoratu nahi digu gure osasun eskubideak botikak eta kalitatezko osasun zerbitzuak jasotzeko aukeraz harago doazela. Hezkuntza, lana edo etxebizitza izateko eskubideak funtsezkoak dira gorputzaren eskubideak modu zehatz batean gauzatu ahal izateko, pertsonak pobreziak jota bizi badira, etxebizitzarik ez badute edo gutxieneko hezkuntza jaso ez badute, baldintza zaurgarriagotan gelditzen dira, babesgabe, beren bizitzaren esparru guztietan; bai eta osasunaren arloan ere.

Eskatzen dugu, ondorioz, ekitatea izan dadila oinarria, jakin badakigulako ezin dugula esan berdinak garela kultur identitateak, jatorria, identitate sozial edo ekonomikoak kontuan hartzen ez baditugu, askotariko bilakatzen gaituzten dimentsio guztiak kontuan hartzen ez baditugu, horiek guztiek toki ezberdinetan jartzen gaituztelako. Dibertsitatea gorde behar dugun aberastasuna da.

Migratzaileen kasuan, beharrezkoa da Nafarroan dugun osasun unibertsala berreskuratzea, modu argi batean, estatuan bizi diren pertsona guztientzat. Ondorioz, Nafarroako Gobernuari eskatu nahi diogu bultza dezala 2012ko Erret Dekretua bertan behera uzteko prozesua.

GIBarik gabeko etorkizun baten alde aurrera egiteko, aldarrikatu nahi dugu gure herrialdean bultza dezatela adostasun politiko ahalik eta zabalena GIBari aurre egiteko erantzunen inguruan, eta kontuan har ditzatela ahalik eta lasterren prebentziorako alderdiak, bai eta estigmarekin eta bazterketarekin lotutakoak ere, esku hartzeko erreferentziazko esparru egonkor eta ekitatibo bat zehaztu ahal izateko.



Akordio horrek behar zehatzak jartzen ditu mahai gainean:

- Esparruan lanean ari garen gobernuz kanpoko erakundeen lana aitortzea, babestea eta behar den neurrian diruz laguntzea.
- Sexu osasunaren eta ugalketaren Foru Dekretua hezkuntzaren esparruan eta esparru soziosanitarioan ahalik eta azkarren eta modu orokorrean ezartzeko giza baliabideak eta baliabide materialak ematea.
- Gizarte, osasun eta hezkuntza langileei GIBari buruzko trebakuntza ematea, batez ere Lehen Arretan.
- GIBa eritasun infekzio-kutsakorren zerrendatik kentzea.
- 16/2012 Erret Dekretua bertan behera uztea.

Anitz dira lortutakoak eta bide beretik jarraitu nahi eta behar dugu, hemen diren guztiengatik, eta, batez ere, GIBarekin bizi diren guztiengatik, eta haien lagun eta senideengatik.

Bereziki gogoratu behar ditugu gaur jada gurekin ez diren ekintzaileak; haiei zor diegu gure lanak, babesak eta ahaleginak GIBa kontrolpean hartzeko bidean aurrera eramatea.

Iruñea, 2017ko abenduaren 1



C/ Ciudad de Sueca 5, bajo  
31014 Pamplona · Navarra  
Tel.: 948 38 41 49  
sare@pangea.org  
C.I.F.: G-31471386



C/ Del Carmen 13, bajo Pamplona/Iruñea  
948 21 22 57  
comisionantisidadenavarra@gmail.com